

# andramaixek 2013

azkottin, abuztun 14tik 18re



**ANDRAMAIXEK**

**Abuztuak 14tik 18ra**

**2013**

# Agurra

Azkoitiarron festak



Hemen dira Andramaixek. Hemen dira herriko festak, Azkoitiko festak. Bost egunez, koloreak, umoreak eta alaitasunak hartuko dute herria eta jai giroan murgilduko gara azkoitiarrak. Azkoitiarrak, bai, herritarrok izan nahi baitugu aurtengo festetako protagonista.

Jai herrikoi eta parte hartzaileen alde beste pausu bat eman dugu uda honetan: herritarren proposamenak biltzeko ahalegin berezia egin dugu, bai inkesta bidez, bai Internet bidez eta baita festen inguruan egindako bileratan ere. Andramaixek parte hartzaileagoak eta herrikoiagoak nola egin, hori izan da galdera, eta horren bueltan hausnarketa eta proposamen ugari landu ditugu.

Asko izan dira ekarpenak, asko ideiak. Eta batzuk aurten estreinatuko ditugu: haurren eta gurasoen parte hartzea sustatzeko, ume eta gurasoen bazkaria eta jolasak antolatu ditugu eta gazteek kale giroa indartzeko, koadrilen kamixeta lehiaketa eta gazte olinpiadak, besteak beste.

Azkoitiar guztiek parte hartu eta disfrutatzeko, ahalik eta programa anitz eta zabalena osatzen saiatu gara: erromeria, rocka, ikuskizunak, jolasak, bazkariak, pelota partiduak, herri kirolak, marmitako lehiaketa, gazteen arteko jokuak...

Guztion Andramaixek egin nahi ditugu eta horregatik, guztiok animatu nahi zaituztegu parte hartzera. Egin ditzagun Andramaixek geure, hartu dezagun parte eta gozatu dezagun festaz!

*Durante este último mes diferentes agentes y asociaciones del municipio hemos reflexionado sobre cómo hacer unas fiestas más populares y participativas. Han sido muchas las ideas propuestas y entre ellas hemos apostado por dos nuevas iniciativas: la comida popular para niñas/os y el concurso de camisetas de las cuadrillas. Queremos unos Andramaris para todas/os; participemos y disfrutemos de las fiestas.*

## Aurtenguk sekulekuk izengoie!

Festa herrikoi eta parte hartzaileagoen alde lanean aritu diren hainbat talde eragile eta norbanako

**Argitaratzailea:**  
Azkoitiko Udala.

**Azala:**  
Beñat Alkorta  
(II. Kartel lehiaketako irabazlea).

**Argazkiak:**  
Mikel Zengotita eta Joakin Sodupe.

**Diseinua, maketazioa eta testuak:**  
EREGI, Euskara eta Komunikazioa  
Tel.: 943 08 06 88 - eregi@eregi.net  
[www.eregi.net](http://www.eregi.net)

**Ale kopurua:**  
5.000 ale.

**Inprimaketa:**  
MARTINEZ Inprimategia, S.L.

Udal Gobernuak eskerrak eman nahi dizkizue Andramaixek hobetzeko lanean ari zareten azkoitiar guztiei. Festak herrikoitzeke eta partaidetza bultzatzeko egin duzuen ahalegina txalotzekoa da. Eta falta direnak beti gogoan, gainerako azkoitiarrak ere festara eta plazara ateratzera animatzen zaituztegu. Azkoitiak eta azkoitiarrek merezi dugulako, ahalik eta festa alai eta zoriontsuenak pasatzea opa dizuegu.

*El Gobierno Municipal agradece a las/las azkoitiarras su participación en la organización de los Andramaris y les desea unas felices y agradables fiestas.*

## Ondo-ondo pasau Andramaixek

Udal Gobernu



# Auzolanaren eredu

Aurtengo festetan zulo handia nabarituko dugu azkoitiarrok, Andramaixetan lan eta lan urte luzez aritu den herritar bat faltako baita aurreneko aldiz: Bittor Lizarralde Arana.

Orain hamarkada ugari Xoxote txarangan, azken 25 urteotan abuztuaren 18ko bazkaria antolatzen... lotura zuzen-zuzena izan zuen Lizarralde beti festekin, bai kaleko giroa alaitzen bai azkoitiarren ekintza herrikoiak bultzatzen ere. Orain mende laurden paella jana egiten hasi zenetik urtero egin izan zuen lana hura antolatzen, prestatzen eta jasotzen; boluntario, musutruk, fin-fin. Eta ez festetan bakarrik, herrian egindako beste hainbat kultur ekimenetan han izan zen, beti, laguntzeko prest.

Handia izan da Lizarralde egindako lana eta handia utzitako zuloa. Horregatik, omenaldi xume bezain beroa egin nahi dio Udalak Andramari bezperan. Txupinazoaren atarian eta txupina botatzeko unean gogoan izango dute udaletxean, eta baita kalean ere.

Parte hartzea, herrikoitzea eta auzolana bultzatu eta indartu nahi ditugun honetan, eredu izango zaitugu Bittor. Saiatuko gara zuk hartutako bidetik jarraitzen.

**Agur eta ohore**

*El recientemente fallecido Bittor Lizarralde Arana recibirá un humilde homenaje el día 14, minutos antes del chupinazo. Durante más de un cuarto de siglo, Lizarralde participó activamente en la organización de la paella popular del día 18, además de en otras actividades culturales. Ejemplo a seguir por la ciudadanía, el Consistorio quiere reconocer así la labor realizada por Bittor en favor de Azkoitia y las/los azkoitiarras.*



# Dan Herrixe on!



Bada denboratxo bat aurtengo Andramaixekin bueltaka hasi ginela eta beste urte batez ere jai parte hartzaile, euskaldun eta parekide batzuen aldeko apustua egin dugu egitarau txukun bat prestatuz.

Herriko festei kolore anitza eman nahi diegu era guztietako ekimenekin, eta horren adibide dira San Martingo jeitsiera, urtez-urte gero eta indar handiagoa hartzen ari den marmitako txapelketa edo aurten lehendabizikoz egingo diren gazteen arteko olinpiadak edo kamixeta lehiaketa.

Azkoitiko ohitura onak galdu ez daitezen edo berreskuratu ditzagun ideia ugari egon dira festa batzordean nahiz eta denbora kontuengatik batzuk hurrengo urteetarako gorde behar izan ditugun.

Haur, gazte zein heldu, herritar denon artean Andramaixei bizitasuna eman behar diegu, jaia ez baita ikusteko solik, jaia egin egiten baita eta herriak egiten duenez, ezinbestekoa da guztion parte hartzea. Beraz, ez geratu etxean, animatu, parte hartu, gozatu ahal den gehien eta Andramai hauetan

## DAN HERRIXE ONI

*Otro año más, hemos hecho todo lo posible para organizar unas fiestas participativas, euskaldunes y basadas en la igualdad. Con eventos como la bajada de San Martín o el concurso de Marmitako, queremos que los Andramaris sean lo más plurales posibles. La fiesta la hacemos todos y todas: animate, participa y disfruta. En estos Andramaris, **DAN HERRIXE ONI***

Festa batzorde herrikoia



# Gazteak, kale giroan

Festa eta gazteak. Eskutik joaten dira beti Andramaixetan. Marmitako txapelketa, herri bazkaria, koadrilen arteko jolasak... egunero eta gauero nagusi izaten dira gazteak eta eurek ematen diote bizia eta saltsa festari. Gatz eta piper hori are gehiago indartzeko ahaleginetan, aurten erronka berria ezarri diote euren buruari: aurreneko aldiz, koadrillen kamixeta lehiaketa egingo da 18an, bazkal ostean. Elastiko onenaren peskizan, desfilea ere egingo dute parte hartzaileek eta umorez jantziko da herriko plaza.

Eguneko kale giroa indartzeko asmoz proposatu dute ekimena gazteek eurek eta koadrilen parte hartzea eta inplikazioa lortu nahi dute. Izan dezala postre freskoa bazkariak!

*Las/los jóvenes han organizado un nuevo evento para la sobremesa del 18: un concurso de camisetas de las cuadrillas. Con desfile incluido, se pretende impulsar el ambiente festivo durante el día, además de fomentar la participación de las cuadrillas.*



# Umeak protagonista

Umeek protagonismo berezia hartuko dute San Roke egunean. Bazkaria, jolasak, Irrien Lagunak... eurentzako bereziki prestatutako ekimenek hartuko dute abuztuaren 16a, txikienek ere festez gozatu eta parte hartzeko aukera izan dezaten. Eta umeekin batera, gurasoak ere bai: izan ere, ekimen guztiak haur zein gurasoentzat prestatu dira, elkarrekin gozatu eta disfrutatzeko.

Herritarrek eurek proposatutako ekarpena izan da. Haur eta gurasoek ere jaien parte izan beharko luketela sinestuta, denek hartuko dute parte bai bazkaria antolatzen bai ondorengo jolasetan ere. Eta giro ona borobiltzeko, Irrien Lagunen ikuskizuna izango da arratsaldean.

*Las/los niñas/niños serán protagonistas en el día de San Roque. Tendrán comida popular, juegos y actuación de Irrien Lagunak. Se trata de un evento propuesto y organizado por la ciudadanía, cuyo objetivo es impulsar la participación de las/los más pequeñas/os y sus familiares.*



## Abuztuak 10 - Larunbata

**17:00** Martitterako igoera, Herriko plazatik abiatuta. Izen ematea: aurretik, Zurt, Ttakun eta Koxkan, edo egunean bertan, 16.00etatik 16:30era, Herriko plazan. Jokin Ormaetxea txirrindulari elkarteak antolatuta.

## Abuztuak 13 - Asteartea

**18:00** XVII Javier Sagarzazu Saria: Anaitasuna-Zarautz. Txerloiko futbol zelaian.



**10:00** San Martingo elkartean hamarretakoa.

**10:30** IV. Jokin Ormatetxea jubenilen txirrindulari lasterketa, Ibai-Ondo kaletik abiatuta. Helmuga Plaza Berrin izango da.

**11:30** Koadrilen jaitsiera txupinazora, San Martingo elkartetik.

**11:40** Bittor Lizarralde zenari omenaldia, Udal pleno aretoan.

**12:00** 2013ko Andramaixei hasiera emateko txupinazoa botako da, herriko musika bandak 'Ondo pasau Andramaixek' jotzen duen bitartean. Ondoren, musika Bandaren, Parrokiko abesbatzaren eta Iraurgi abesbatzaren laguntzaz, herritar guztiek 'Azkoitia' abestia kantatuko dute.

**12:15** Eltziegoko Dultzaineroek 'Kandido' konposaketa eskainiko dute eta, ondoren, erraldoi eta buruhaundien kalejira abiatuko da.



**14:00** III. Marmitako txapelketaren sari banaketa.

\*Lehiaketan parte hartu nahi dutenek udaletxean edo festa batzordean eman behar dute izena, abuztuaren 12a baino lehen.

**14:30** Bazkari herrikoa, Ikurrinaren plazan (marmitako jana txotxarekin). Ondoren, kuadrilen arteko jolasak.

**17:00** Haur parkea Herriko plazan (puzgarriak, gazteluak...).

**20:00** Ignacio Busca Sagastizabalen 'Salbea' (7 ahotsetara) eta aita Nemesio Otañoren 'Ave Maria' (5 ahotsetara) abestuko dira, Eliza Nagusian.

**22:00** Oliver magoaren ikuskizun, Forash mago azkoitiarrarekin, Herriko plazan.

**22:30** Balda Plazan, 'Fabrez 07' diskoaren aurkezpen erromeria. Parte hartzaileak:

- Mamen Maltzeta eta Nerea Ugarte.
- Barrenola anaiak.
- Zabale anaiak.
- Jauregi eta Andere.

**23:00** Moonlight Melodies eta talde sorpresa baten kontzertua, txosnetan.



**09:30** Eltziegoko dultzaineroen kalejira.

**10:00** Herriko musika banda eta Txalkor txistulari taldearen kalejirak.

**11:00** Meza Nagusian, herriko abesbatzek Miguel M<sup>a</sup> Azpiauren 'Pakea Lurrean' abestuko dute, 5 ahotsetara. Ofertorioan, Migel M<sup>a</sup> Azpiauren 'Agur Maria' estreinatuko da, 4 ahotsetara.

Organista: Jose Luis Frantzesena.  
Zuzendaria: Inazio Alberdi.

**12:00** Dultzaineroen laguntzaz, erraldoi eta buruhaundien kalejira.

**13:00** Herriko musika bandak, Txalkor txistulari taldeak eta Azkoitiko dultzaineroek kontzertua eskainiko dute.

#### AZKOITIKO MUSIKA BANDA

(Zuzendaria: Ismael Conde)

Strathcarron...Sword dance.... Philip Sparke  
Granada..... Agustin Lara  
Arreglo: Kazumiro Morita

#### AZKOITIKO DULTZAINEROAK

(Zuzendaria: Pello Larrañaga)

Txarrintxula.....Alaia..... Salvador eta Izar Martinez

#### TXALKOR TXISTUARI TALDEA

(Zuzendaria: Pello Larrañaga)

Kibiste.....Herri Musika.....Moldaketa: Iraitz Zabaleta eta Txalkor

#### AZKOITIKO MUSIKA BANDA

(Zuzendaria: Ismael Conde)

Ross roy.....Overture for band.....Jacob de Haan

**17:00** Pilota partiduak, Gurea pilotalekuan

Aritz Lasa-Merino I / Olaizola I-Iza Irujo-Barriola / Olaizola II-Apr aiz.

**18:30** Bapatean Zirkoaren 'Tabernan' ikuskizuna Herriko plazan.

**19:00** Bertso poteoa, Herriko plazatik.

**20:00** Eltziegoko dultzaineroen kalejira.

**23:00** III. Andramaixetako laburmetrai lehiaketa, Herriko plazan.

**23:30** Patxi eta konpainiarekin Erromeri-dantzaldia, Herriko plazan.





Abuztuak

16 Ostirala

San roke

**09:30** Eltziegoko dultzaineroen kalejira.

**10:00** Txalkor txistulari taldearen kalejira.

**11:00** Eliza nagusian, herritar erlijioso eta lekaiameak partaide direla, Meza Nagusia. Parrokiko abesbatzak 'Misa de Angelis' abestuko du.

**11:00** Erraldoi eta buruhaundien kalejira, dultzaineroen laguntzaz.

**12:15** Ohiko Aureskua, Umore Ona elkarteak antolatuta, Herriko plazan.

**13:00** Kontzejupean Azkoitiko Musika Banda eta Eltziegoko dultzaineroen kontzertua.

#### AZKOITIKO MUSIKA BANDA

(Zuzendaria: Carlos Muñoz)

Cuatro cantos vascos

Bortian ahuzki.....Udalaitz  
Aberri maiteari.....J.Guridi  
Nik baditut.....P.J.San Sebastian  
Berterretxen Khantoria.....Udalaitz

Basque Rhapsody..... Melvin

#### ELTZIEGOKO DULTZAINEROAK

Pasodoble.....Herrikoia  
Vals de ejecución.....Nicolas Garcia  
Zortziko.....Iparragirre

#### AZKOITIKO MUSIKA BANDA

(Zuzendaria: Carlos Muñoz)

El Caserio.....Preludio del 2º acto.....Jesus Guridi

**14:00** Haur eta guraso bazkaria Herriko plazan.  
\* Izen ematea: abuztuaren 7tik 12ra, festa batzordean edo udaletxean.

Ondoren, Haur eta gurasoentzako jolasak eta bukaeran zezen karretoiarekin kalejira Balda Plazara.

**17:30** Pilota partiduak, Gurea pilotalekuan.  
Capellan-Uzkudun/A.Juaristi-O.Lasa  
X.Andreu-M.Goñi/Larrañaga-Otxandorena

**17:30** Irrien lagunak 'Ane eta Piratekin parrandan', Balda Plazan.

**19:00** Herrira ekitaldia.

**21:00** Parillada herrikoa, txotxarekin, Kontzejupean.  
Parillak piztuko dira eta bakoitzak bere janaria eraman beharko du, han erretzeko.

**23:00** Suzko erroberak, Bastarrikaldetik, Pirotecnia Zaragozana etxearen eskutik.

**23:30** Grises eta Corizonas taldeen kontzertua, herriko plazan.





Abuztuak



17 Larunbata

baserritarra

**09:00** etatik  
**10:00** etara  
XXXII. Inazio Iriarte margo lehiaketako seilatzea, udaletxean. Bukatutako lanak 14:00etatik 15:00 bitartean jasoko dira, Torre Zurin. Azkoitiko kultur elkartearen eskutik.

**09:30** Herriko dultzainero eta trikitilariekin kalejira.

**09:30** Gipuzkoako VIII. Blonda Txapelketa, Plaza Berrin.

**10:00** etatik  
**13:30** era  
Bertako baserritarren produktuen salmenta, azokako arkupetan.

**12:00** Txistularien laguntzaz, erraldoi eta buruhandiak.

**12:30** Jubilatuen meza, Eliza nagusian.

**12:30** Herri kirol jaialdia, herriko plazan.  
-Euskal Herriko 2. mailako Aizkolari kanporaketa.  
-Harri jasotzailea: Idoia Etxeberria.

**14:30** Jubilatuen anai-arreba arteko bazkaria, Loiolako Kiruri jatetxean. Bertan, aurten 90 urte betetzen dituzten herritarrak omenduko dira.

**17:30** Koadrilen arteko Gazte Olinpiadak.

**18:00** Dantzari bikote gazteen txapelketa, Balda plazan.

**18:00** 5. DIVA -SAT Idi dema saria, herriko probalekuan.

Rte. Zubiondo -Soarte

**19:30** Inazio Iriarte XXXII. Margo lehiaketaren sari banaketa, Torre Zuri erakustokian.

**22:00** 5. DIVA -SAT Idi dema saria, herriko probalekuan.

I. Lopategi - Urrutia - P. Arzadun.

**23:00** Suzko zezena Herriko plazan.

**23:30** Walk Mans eta Lin Ton Taun taldeen kontzertua, Herriko plazan.



Abuztuak



18 Igandea

**10:30** Haur eta helduentzat Yudo erakustaldia eta ondoren nahi duten guztiek, bertan parte hartzeko aukera izango dute. Eliz atarian. Antolatzailea: Yudo Klub Kimura.

**11:00** Atletismo saioa, Balda Plazan. Ondoren, XIII. Andramaxetako Milia, Xeye atletismo taldeak antolatuta.

**14:30** Bazkari herrikoia, Herriko plazan. Ondoren, kamiseta lehiaketa.  
\*Bi ekitaldietan izen emateko, abuztuaren 7tik aurrera, udaletxean.

**16:30** Elektro txaranga.

**18:00** Haurrentzako Apar festa, Balda plazan.

**18:30** Fan&Go taldearekin erromeria txosnetan.

**22:30** Tximeleta taldearekin dantzaldia, Herriko plazan.



Abuztuak

19 Astelehena

**22:00** 5. DIVA - SAT Idi dema saria, herriko probalekuan

P.Illarreta - Rte.Andrakas - Taberna Goieta.

Abuztuak

20 Asteartea

**22:00** 5. DIVA - SAT Idi dema saria, herriko probalekuan

I. Oliden - Alegria - J.Elordui.

